

Dabid Anaut

EUSKARA TEKNIKARIA ♦



Enpatia bila, geure buruaren alde

AURRERANTZEAN, euskaraz eginen duten euskaldunok bi —edo hiru— hizkuntzatan ongi moldatzen diren hiztunak izanen dira. Sarritan, erdaraz euskaraz baino hobeki moldatzen direnak gainera. Euskaraz eginen dute, baina ez ezinbestean euskaldun elebakarren garaian bezala, hala nahiko dutelako baizik. Gauzak ikaragarri aldatzen ez badira behintzat.

Gutako askok, ez denek jakina, bi aukera izanda euskaraz egitea hobetsiko dugu, halaxe nahi dugulako. Nahi edo sentimendu hori ez guke akaso denek berdin azalduko, askotariko bulkadak egon bailitezke horren atzean: ideologikoak, kulturalak, erosotasunari lotutakoak...

Ez naiz deus deskubritzen ari eta irakurle horrek hainbeste badakizu. Susmoa dut, ordea, askok ez duela guretzat bistakoa den kontu hau usaintzen. Alegia, euskaraz egin nahi dugula hobeki sentitzen garelako, ez dela apeta hutsa. Euskarari eusteak hainbatetan sortzen dizkigun gatazkak eta deserosotasun handien eta txikien gainetik euskaraz egin nahi izaten dugu, hain zuzen ere, batean edo bestean ez garelako berdin sentitzen.

Saiatzen ote gara, ordea, gure barruko sentimendu hori azaltzen erdaldunei, esate baterako? Egoera jakin eta ohiko bat daukat gogoan eta horretaz ariko naiz:

*Ez gaude ohituta
hizkuntza erabilera
emozioekin eta
sentimenduekin lotzen,
eduki formal eta
ideologikoekin osatzen
dugu euskararen
inguruko diskurtsoa*

zazpi euskaldun + erdaldun bat = zortzi erdaldun. Erdaldun bakar hura gaizki edo deseroso senti ez dadin, gu sentitzen gara gaizki, etsiak hartuta, gurekin beti euskaraz ari direnekin erdaraz arituta, errikulua- ren eta egonezinaren arteko sentsazio arraro batean.

Ez baikaude ohituta hizkuntza erabilera emozioekin eta sentimenduekin lotzen, eduki formal eta ideologikoekin osatzen baitugu euskararen inguruko diskurtsoa, batzuetan erdaldunen enpatia aktibatze-ko aukera bat galtzen ari garela iruditzen zait. Egin dezakegu euskaraz, noski, eta zortzikotearen egoera horretan hala egin behar dugula iruditzen zait niri behintzat. Eta egin dezakegu inori argibiderik eman gabe, guk ere badugu normal aritzeko eskubidea.

Baina agian aiseago gaudituko genituzke egoera jakin horietan euskaraz aritzeko konplexuak eta ezintasunak gure ondokoen —gure inguruko erdaldunek ari naiz— erresistentziak erortzen ikusiko bagenu, eta uste dut gure sentimendu horiek noizean behin behintzat adieraztea behar beste erabiltzen ez dugun arma bat dela horretarako. Adierazteak merezi duenean, jakina, ez baita beti horrela izaten! Merezi duenean, horrenbestez, azaldu, hitz egin, eta hortik aurrera eutsi lasai geureari. ■



DANI BLANCO



**Amets
Arzallus**

♦

BERTSOLARIA

Gure sor lekua

“GURE ZINEMAREN historia petrala” idatzi zuen Koldo Izagirrek, badu kapitulu berri baterako gaia. Euskal Herriko Unibertsitateko hiru kide, prentsaren aurrean, aurkikuntza eder baten berri ematen; euskarazko filmik zaharrena aurkitu omen dute, 1956koa, *Gure Sor Lekua*, frantses armada-ko jeneral hazpandar batek egin, baina historiaren paradoxa, film horrek soinu-askas. Hitzik ez.

Artxibategi Nazional batek ere ez zukeen hobeki eginen, bideoa kontserbatu da, baina audioa ez. Ez dakit jatorrizko gidoigileak nola kontatzen ote zuen ordu-

ko historia, baina hitzak zakarretara bota galdu ahaztu ezkatatu jaso edozer egin duenak ederki kontatzen du gure egoera berria. Ni ez nintzateke audio horren bila zokorik miatzen hasiko. Ez nioke musikarik ere erantsiko. Dagoen horretan utziko nuke. Paisaia eder bat bere mututasun mingarrian.

Izan ere, Iruña-Veleiako ostraketako gure hitzak egiazkoak ote diren ez dakigu oraindik, delako film horren isiltasuna egiazkoa dela sinets dezakezue, neuk diotsuet. ■

